

PRODUCTO DE ASISTENCIA EN VIAJE DE EUROP ASSISTANCE ESPAÑA, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS PARA TITULARES DE GAZTE-TXARTELA

ASEGURATUA

GAZTE-TXARTELAren titularra den eta ohiko bizilekua Espainian duen pertsona fisikoa.

HELBURUA

Bidai Asegururako Kontratu honek geroago zehaztuko diren estaldurak dituzten arriskuen ondorioen kontrako babes ematen du, betiere ohiko bizilekutik kanpoko bidaietan ezustekoren baten ondorioz gertatu badira. Nahitaezkoa izango da lekua estalduraren barruan egotea, kontratua indarrean eta bertan adierazitako mugak ez gainditzea.

OHIKO BIZILEKUA

Aseguratuaren ohiko bizilekua kontratuan adierazten dena da (betiere Espainian). Bertatik egiten dira poliza honek estaltzen dituen joan-etorriak.

ESTALITAKO LURRALDEA ETA IRAUPENA

Aseguruak mundu osoan emango du asistentzia. Bidaiaren unean gerran, altxamendu-egoeran edo edozein eratako gerra-gatazketan dauden herrialdeak kanpoko utziko dira, baita aipatutako gatazkak ofizialak ez badira ere. Bestela, EUROP ASSISTANCEk ordaindu egingo ditu estalitako gastuak, jatorrizko ordainagiriaren bidez egiaztatuta badaude.

Ondoren adieraziko diren estaldurek ez dute baloirik izango atzerriko egonaldia 90 egunetik gorakoa bada bidai bakoitzeko.

KILOMETRO-FRANKIZIA

Aseguruak ohiko bizilekutik 30 km-tik aurrera izango du indarra.

PRIMAREN ORDAINKETA

Kontratua egitean aseguru-hartzaileak momentuan ordaindu beharko du aseguruaren prima.

EZBEHARRETAN EGIN BEHARREKOAK

Kontratuak estalitako zerbitzuren bat eskatzen duten gertaeretan, behar-beharrezkoa da lehenik eta behin EUROP ASSISTANCEren baimena lortzea ezbeharra gertatzeaz bat honako zenbaki hauetara deituta: Espainiatik xxxxxxxx zenbakira, atzeritik xxxxxxxx zenbakira eta faxez 91.514.99.50 zenbakira. Telegrama eta posta ere erabili ahal izango dira.

Halabeharrezko arrazoiren batengatik abisua ematerik ez badago, arrazoia desagertzeaz bat emango da gertakariaren berri.

Behin harremanetan jarritakoan, aseguruak ondorengo datuak eman behar ditu: kontratu-zenbakia, non dagoen, harremanetarako telefonoa, ezbeharra nola gertatu den eta zer eratako laguntza behar duen. Ondoren, eskatutako zerbitzurako behar diren jarraibideak emango dizkio EUROP ASSISTANCEk aseguruari eta, aseguruak ez baditu betetzen, ondorioz sortutako gastuak berak ordainduko ditu. Edozein gastu ordaintzeko behar-beharrezkoa da jatorrizko frogagiriak aurkeztea.

SUBROGAZIOA

EUROP ASSISTANCE subrogatuta geratuko da bere esku hartzea eragin duten gertaeren arduradunen aurka aseguruak dituen eskubide eta ekintzetan. Holakoetan, konpainia horrek emandako zerbitzuen kostu osoa jaso beharko du. Kontratuari dagozkion prestazioak erakunde aseguratzailearen batek, Gizarte Segurantzak edo beste edozein erakunde edo pertsonak eman baditu, zati batean edo osorik, EUROP ASSISTANCE subrogatuta geratuko da aseguruak konpainia edo erakunde horren aurka dituen eskubide eta ekintzetan.

Aseguruak lagundu egin beharko dio EUROP ASSISTANCEri beharrezkotzat jotzen den edozein laguntza edo agiri emanda.

Edonola ere, aseguruak itzultzeko gastuak EUROP ASSISTANCEk ordaindu baditu, EUROP ASSISTANCEk garraio-titulua (treneko, hegazkineko eta abarretako txartela) erabiltzeko edo aseguruari titulu horren zenbatekoa ordaintzeko eskubidea izango du.

ERANTZUKIZUNA

Ezbeharretan aseguruaren erabakiak eta ekintzak ez badatoz bat EUROP ASSISTANCEk edo Osasun Zerbitzuak emandako jarraibideekin, EUROP ASSISTANCEk ez du erantzukizunik bere gain hartuko.

LEGERIA ETA ESKUMENA

Aseguratu eta EUROP ASSISTANCE Espainiako legediaren mende jartzen dira, kontratu honen ondorioetarako. Aseguruaren ohiko bizilekuko epaileak izango du kontratu honetatik sortutako ekintzen gaineko aginpidea.

BERMEEN MUGAK

Kontratu honen prestazio bakoitza zenbateko jakin batzuetaraino hel daiteke. Baldintza Partikularretan zehazten den indarraldian gehienez meta daitezkeen zenbatekoak dira.

ERREKLAMAZIOAK

EUROP ASSISTANCEk ez du aseguruak aurkeztutako erreklamaziorik onartuko, zerbitzua eman zenetik 90 egun igaro ondoren.

ASEGURUAREN BERMEAK

1.- Atzerrian izandako osasun-gastuak

Atzerrian gaixotasun edo istripuren bat gertatuz gero, EUROP ASSISTANCEK 3.000 eurorainoko zenbatekoa emango du, kontratua indarrean dagoen bitartean eta aseguratuko bakoitzeko, ondoren zehazten diren gastuetarako:

- Medikuen ordainsarirako
- Medikuek edo kirurgilariak errezetan agindutako sendagaietarako
- Ospitaleko egonaldiaren gastuetarako
- Medikuen aginduz erabilitako ambulantiaren gastuetarako

Atzerrian eta Espainian bermatutako zenbatekoak ez dira bateragarriak.

EUROP ASSISTANCEK ez badu asistentzia zuzenean parte hartu, eragindako gastuak ordaintzeko ezinbestekoa izango da, ordainagiri originalez gain, medikuaren xehetasuneko txostena (aurrekariak, diagnostikoa eta tratamendua) ere aurkeztea, gaixotasuna zehazteko.

Edonola ere, aseguratuko 30 euroko frankizia ordaindu behar du, beharrezko osasun-zerbitzu guztietan.

Premiazkoak jotzen diren hortzetako gastuak gehienez ere 60 euroraino estaliko dira. Endodontziak, beste tratamendu batzuen berreraikuntza estetikoa, protesiak, zorroak eta inplanteak estalduratik kanpo geratzen dira.

Sortutako gastuetan EUROP ASSISTANCE subrogatu egingo da, aseguratuko Gizarte Segurantzatik edo afiliatutako beste edozein aurreikuspen-erregimenetik zerbait jasotzeko eskubidea badu.

2.- Espainian gertatutako istripuen ondoriozko gastuak

Bidaian istripuren bat gertatuz gero, EUROP ASSISTANCEK 300 eurorainoko zenbatekoa emango du, kontratua indarrean dagoen bitartean eta aseguratuko bakoitzeko, ondoren zehazten diren gastuetarako:

- Medikuen ordainsarirako
- Medikuek edo kirurgilariak errezetan agindutako sendagaietarako
- Ospitaleko egonaldiaren gastuetarako
- Medikuen aginduz erabilitako ambulantiaren gastuetarako

Atzerrian eta Espainian bermatutako zenbatekoak ez dira bateragarriak.

EUROP ASSISTANCEK ez badu asistentzia zuzenean parte hartu, eragindako gastuak ordaintzeko ezinbestekoa izango da, ordainagiri originalez gain, medikuaren xehetasuneko txostena (aurrekariak, diagnostikoa eta tratamendua) ere aurkeztea, gaixotasuna zehazteko.

Edonola ere, aseguratuko 30 euroko frankizia ordaindu behar du, beharrezko osasun-zerbitzu guztietan.

Premiazkoak jotzen diren hortzetako gastuak gehienez ere 60 euroraino estaliko dira. Endodontziak, beste tratamendu batzuen berreraikuntza estetikoa, protesiak, zorroak eta inplanteak estalduratik kanpo geratzen dira.

Sortutako gastuetan EUROP ASSISTANCE subrogatu egingo da, aseguratuko Gizarte Segurantzatik edo afiliatutako beste edozein aurreikuspen-erregimenetik zerbait jasotzeko eskubidea badu.

3.- Gaixotasun edo istripuen ondorioz hoteleko egonaldia luzatu behar izatea

Gaixotasun edo istripuaren ezaugarriengatik aseguratuko ezin badu bidaiatzen jarraitu, eta klinikan edo ospitalean ez egon arren hoteleko egonaldia luzatu behar badu, betiere medikuaren aginduz, EUROP ASSISTANCEK hoteleko gastuak honela ordainduko ditu: egun bakoitzeko gehienez 60 euro, asko jota 10 egunez.

4.- Gaixo eta zaurituen osasun-garraioa

Aseguratua gaixotu egin bada edo, kontratua indarrean dagoela, istripua izan badu bere ohiko bizilekutik at bidaiatzean, eta beraz, ezin badu bidaiatzen jarraitu, EUROP ASSISTANCEK, hori jakin bezain laster, beharrezko harremanak antolatuko ditu bere osasun-zerbitzuaren eta aseguratuekin dabilzan medikuen artean.

EUROP ASSISTANCEren osasun-zerbitzuak aseguratua bere Espainiako ohiko bizilekutik hurbil eta hobeto ekipatuta edo espezializatuta dagoen ospitale batera eramateko agintzen badu, EUROP ASSISTANCEK bere gain hartuko du lekualdatzea, eta larritasunaren arabera, honako bitarteko hauek erabiliko ditu:

Osasun-hegazkin berezia

Lehen mailako tren

Osasun-helikopteroa

Ambulanzia

Ohiko lineako hegazkina

Osasun-hegazkin berezia Europan eta Mediterraneoaren ertzeko herrialdeetan baizik ez da erabiliko.

Garraibidea eta aseguratua zein erietxetan ospitaleratu aukeratzeko, osasun-arloko arazoak bakarrik hartuko dira kontuan.

Aseguratuko uko egiten badiu EUROP ASSISTANCEren osasun-zerbitzuak zehaztutako unean eta baldintzetan lekualdatzeari, erabaki horren ondoriozko berme eta gastu guztiak bertan behera geratuko dira, besterik gabe.

5.- Aseguratuaren laguntzaileen itzulera aurreratua

Aseguratuari gaixotasun edo istripuren batek "Gaixo eta zaurituen osasun-garraio"ko bermea aplikatu bazaio, edo aseguratua hiltzea suertatu bada, haren laguntzaileek bidaia bertan behera utzita etxera itzuli behar badute, EUROP ASSISTANCEK ordainduko ditu haien etxerainoko edo aseguratua dagoen ospitalerainoko garraio-gastuak, ohiko lineako hegazkin-txartela (turista mailakoa) edo trenkoa (lehen kategoriakoa) jarritz.

6.- Gorpuen garraioa.

Aseguratua polizan aseguratutako joan-etorriren batean hilez gero, gorpua ohiko bizilekua zuen Espainiako udalerriraino eramatea –han ehortzeko- EUROP ASSISTANCEK antolatuta eta bere gain hartuko du. Bere gain hartuko ditu, halaber, baltsamatzeko gastuak eta gutxieneko hil-kutxa eta administrazio-formalitateak. Hileta- eta ehortze-gastuak berme honetatik at geratzen dira.

7.- Aseguratuak ospitalean egon behar izanez gero, laguntzailearen bidaia.

Aseguratuak, bidaiatzen ari dela, bost egun baino gehiago eman behar baditu ospitalean eta berarekin zuzeneko senitartekorik ez badago, ohiko lineako hegazkin

(turista mailakoa) edo treneko (lehen kategoriakoa) joan-etorriko txartela jarriko du EUROP ASSISTANCEk ohiko bizilekua Espainian duen laguntzaile baten esku.

8.- Ospitalean dagoen aseguratuari laguntzera joandakoaren egonaldia.

Aseguratuak bost egun baino gehiago eman behar baditu atzerrian ospitalerata, EUROP ASSISTANCEk hoteleko egonaldiko gastuetarako 60 euroraino ordainduko ditu egunero, gehienez ere 10 egunez eta faktura egokiak aurkezten bazaizkio.

9.- Aseguratuaren itzulera familiakoren bat ospitaleratu edo hilez gero.

Aseguratuak poliza honek babestutako joan-etorri batean dagoela, Espainian ezkontidea, guraso, seme-alaba edo neba-arrebaren bat ospitaleratu edo hiltzen bazaio, EUROP ASSISTANCEk, gertaeraren berri ematen zaionean, ehorzketara edo ospitalera joateko bidaia antolatuko dio. Hartara, senitartekoa hil ondorengo 7 eguneko epean joan-etorriko txartela emango dio aseguratuari, ospitalera edo hiletara joan ahal izateko. Ohiko lineako hegazkin-txartela (turista-mailakoa) edo tren-txartela (lehen kategoriakoa) izango da. Aseguratutako beste norbaitekin badago, berriz, itzulerako bi txartel jasoko ditu. Garraioa ospitalerainokoa edo ehorzketalekurainokoa izango da.

Horrelakoetan, aldez aurretik itzultzeagatik egiterik izango ez duen ostatu-egonaldia ondozko ostatu-gastuak ordaindu egingo dizkio aseguratuari EUROP ASSISTANCEk, ondorengo mugarekin: gehienez 90 euro eguneko eta 10 egunez.

10.- Aseguratuaren itzulera ezbeharren bat gertatutakoan

Aseguratuak poliza honek estaltzen duen bidaiaren batean dagoela haren etxean edo lokal profesionalen ezbehar larriren bat gertatzen bada, EUROP ASSISTANCEk, gertaeraren berri ematen zaionean, ezbeharren lekura joateko bidaia antolatuko dio. Hartara, joan-etorriko txartela emango dio, ohiko lineako hegazkinarena (turista-mailakoa) edo trenarena (lehen kategoriakoa). Aseguratutako beste norbaitekin badago, berriz, itzulerako bi txartel jasoko ditu. Garraioa ezbeharren lekurainokoa izango.

11.- Ekipajea bilatu eta aurkitzea.

Aseguratuari ekipajea atzeratu edo galduz gero, bilatzen eta aurkitzen lagundu eta aholkularitza emango zaio kasuan kasuko salaketa egiteko. Ekipajea aurkituz gero, EUROP ASSISTANCEk Aseguratuak Espainian duen ohiko helbidera bidaliko du, betiere berreskuratzeko jabea bertan egotea beharrezkoa ez bada.

12.- Premiazko mezuak helaraztea (bermeen ondoriozkoak)

EUROP ASSISTANCEk, 24 orduko zerbitzuaren bidez, aseguratuen presazko mezuak hartu eta helaraziko ditu, baldin aseguratuek mezua helarazteko beste bitartekorik ez badaukate eta mezua bidaltzearen zergatikoa kontratuan babestutako bermeren bat baldin bada.

13.- Dokumentuak eta gauza pertsonalak atzerrira bidaltzea

EUROP ASSISTANCEk bidaiarako beharrezkoak izanik etxean ahaztuta utzitako objektuen (lentillak, protesiak, betaurrekoak, kreditu-txartelak, gidatzeko txartela, NANA eta pasaporteak) bidalketa antolatu eta ordainduko du. Berme horrek bidaiaren zehar ahaztutako objektuak edo bidaiaren zehar lapurtu ondoren berreskuratzekoak etxera bidaltzea ere hartzen du barne.

EUROP ASSISTANCEk 10 kilogramotik beherako paketeen bidalketak antolatu eta ordainduko ditu soilik.

14. Fondoak aurreratzea

EUROP ASSISTANCEk dirua aurreratuko dio aseguratuari, horren beharra sortzen zaionean. Gehienez ere 1.500 euro utziko dizkio. Horretarako, aurrerakina itzuliko duela ziurtatuko dion abal edo bermeren bat eskatuko dio aseguratuari. Dena den, aurreratutako dirua gehienez ere 30 eguneko epean itzuli beharko dio EUROP ASSISTANCEri.

15. Atzerrian ordaindu beharreko fidantza penala aurreratzea

Aseguratuak atzerrian gertatutako auto-istripu baten ondorioz atxilotu edo auziperatu gero, EUROP ASSISTANCEk lekuan lekuko agintarietako eskatutako fidantza penalaren zenbatekoa aurreratuko dio. 6.000 eurokoa izango da muga. EUROP ASSISTANCEk bere gain hartzen du Aseguratuari abala edo bermea eskatzeko eskubidea, aurreratutako dirua itzuli egingo duela ziurtatzeko.

Dena den, aurreratutako dirua gehienez ere 30 eguneko epean itzuli beharko dio EUROP ASSISTANCEri.

16. Atzerriko laguntza juridikoetan eragindako gastuak.

"Atzerrian ordaindu beharreko fidantza penala aurreratzea" bermea gauzatzeko, EUROP ASSISTANCEk 1.500 eurorainoko zenbatekoa ordainduko du auto-istripuen ondoriozko laguntza juridikoan aritu diren atzerriko abokatuaren eta prokuradorearen lana ordaintzeko.

Berme hori autoaren Aseguru Polizan estaltita badago, aurrerakintzat hartuko da eta "Atzerrian ordaindu beharreko fidantza penala aurreratzea" bermeen adierazitako baldintza berberak izango ditu.

17. Erantzukizun zibila

Aseguratuak EUROP ASSISTANCEk taldeen erantzukizun zibilerako duen poliza batean sartuta daude. Polizaren helburua da dagokion herrialdeko legeriaren arabera aseguratuiak hirugarrenei egindako edo aseguratuari leporatutako kalte pertsonalak, materialak eta/edo horien ondorioak (kontratutik kanpoko erantzukizunekoak) indemnitzatzea. Kalte-ordainaren zenbatekoa gehienez ere 30.050 eurokoa izango da.

Ondorengoak berme honetatik kanpo geratzen dira: erantzukizun zibil profesionala, motoredun ibilgailuak gidatu, erabili eta zirkulazioan jartzea, edozein eratako artefaktu eta armak erabili edo jabetzan edukitzea, aurretik kalte pertsonal edo materialik egon ez denean sortutako kalte ekonomikoak.

SALBUESPENAK

Berme horiek guztiak Aseguratuak Espainiako ohiko bizilekura itzultutakoan edo EUROP ASSISTANCEk etxera edo inguruko ospitaleren batera eramandakoan amaituko dira. Oro har, EUROP ASSISTANCEri aurretiaz jakinarazi ez zaizkion prestazioek eta baimenik eskuratu ez dutenek ez dute estaldurarik izango.

Dena den, ondoren zehaztuko diren eragindako kalte, egoera, gastu eta ondorio guztiak estalduratik at daude:

1. Aseguratuak Kontratua sinatu, berritu edo luzatu aurretik zituen gaixotasun, lesio edo gaitzak eta bidaiara joan aurretik, kontratua indarrean dagoela, egokitutakoak.
2. Aseguratuak bere borondatez EUROP ASSISTANCEk proposatutako eta bere osasun-zerbitzuarekin adostutako osasun-lekualdaketari uko egitea, atzeratzea edo aurreratzea .

3. Gaixotasun mentalak, osasun-azterketa prebentiboak (txekeoak), sendabide termalak, kirurgia estetikoak, Hartutako Inmunoeskasiaren Sindromea eta osasun-tratamenduak hartzeko edo ebakuntzetarako egindako bidaiaak.

Halaber, haurdunaldiari lotutako diagnostiko, segimendu eta tratamendua, nahita eragindako abortuak eta erditzea. Lehen sei hilabeteetan gertatutako premiazko egoerak izango dira salbuespen bakarrak.

4. Aseguratuak apustu, desafio edo liskarretan izandako partaidetza.

5. Lehiaketa-kirolak edo lehiaketa motorizatuak (lasterketak edo rallyak) eta honako jarduerak arriskutsu hauek:

- Boxeoak, halterofilia, borroka (mota guztietakoa), arte martzialak, alpinismoa glaziarretan, trineo-ibilaldiak, arnasketa-aparatuak erabiltzea eskatzen duten ur-azpiko jarduerak, espeleologia eta eskiko tranpolin-jauziak.

- Aireko kirolak.

- Abentura-kirolak, hala nola, raftinga, puentinga, hidrospeeda, amildegietako jaitsierak eta antzekoak. Horrelakoetan, EUROPA ASSISTANCEk osasun-zentroetan tratamenduan jarri ondorengo gastuak hartuko ditu bere gain.

6. Aseguratuak bere burua hiltzea, bere burua hiltzen saiatzea edo autolesionatzea.

7. Mendi, tontor, itsaso eta basamortuko erreskateak.

8. Alkoholdun edariak, sorgogorriak, drogak edo medikuak agindu ez dituen sendagaiak hartzeagatik sortutako gaixotasunak edo istripuak.

9. Hartzailak, Aseguratuak edo horien kausahabenteak egindako ekintza kaltegarriak.

10. Gerrak, manifestazioak, matxinadak, herri-mugimendu iskanbilatuak, terrorismo-ekintzak, sabotajeak eta grebak, ofizialak izan ala ez. Atomo-nukleoen transmutazioa. Mugimendu telurikoak, uholdeak, sumendien erupzioak eta, oro har, naturako indarrek eragindakoak. Aparteko hondamenditzat edo katastrofetzat hartutako bestelako gertakari izugarri edo handiak.

Aipatutakoak gorabehera, ondorengo egoera hauek bereziki estalduratik at daude:

1. Lekuan bertan sendatzeko modukoak diren gaitzak edo lesioak dituztenen garraioa.

2. Betaurreko eta lentilen inguruko gastuak eta protesiak, pieza anatomikoak eta ortopedikoak eskuratu, ezarri, ordeztu, atera eta/edo konpontzea.

3. 10 eurotik beherako osasun, kirurgi eta farmazia-gastuak.

Madril, 2003ko urtarrilaren 27a